

# Hizkuntza, diskriminazioa eraikitzen

Hizkuntza ekintza soziala eta intentzionala da. Abiapuntu horretatik, hizkuntza nola erabiltzen dugun aztertzeak hainbat arazo sozial zergatik egonkortzen den hobeto ulertzen lagun diezaguke, esaterako, emakumeen aurkako diskriminazioa.

Garbiñe Ortiz EHU'n gizarte-psikologian aditua da. Estereotipoen eta hizkuntzaren arteko harremanak ari da ikertzen.

GARBIÑE ORTIZ

Irudia: Kitto

ZAILA DA GIZAKIOK hizkuntzaz baliatzen ez gareneko egoerarik irudikatzea, komunikaziorako tresna nagusia baitugu. Izan ere, hizkuntza sistema abstraktu edo sinbolikoa izateaz gain, hizkuntza *erabili* egiten dugu etengabe, eta hori egitean, hizkuntza ekin-tza bihurtzen dugu. Jendeak gauzak lortzeko, helburuak betetzeko, erabiltzen du hizkuntza. Are gehiago, hizkuntza erabiltzea ekintza soziala da, besteak eragiten dituen ekintza baita, eta ondorio sozialak ditu pertsonen arteko harremanetan, eta oro har, mundu sozialean, errealitateaz zabaltzen dugun irudikapena ez baita erabiltzen dugun hizkuntzatik askea.

## Hizkuntzaren erabilerak ondorio sozialak ditu

Ondorio horien artean, estereotipoak egonkor iraunaraztea dugu, edo beste era batean esanda, desberdintasuna edo diskriminazioa zuzitzeko erabiltzen diren elementu horiei eustea. Estereotipoak, -genero-estereotipoak, hain zuzen- emaku-



meen eta gizonen berezko ezaugarriei buruzko uste-multzook dira eta alderdi deskriptiboa zein preskriptiboa barneratzen

dituzte. Alegia, emakumeak eta gizonak nolakoak diren eta nolakoak izan behar duten agintzen dute estereotipoek. Esaterako, gizonak emakumeak baino independenteagoak eta emakumeak gizonak baino emozionalagoak izatea espero da. Edo, pilotuak gizonak dira eta haurtzaindegiko irakasleak emakumeak dira jendearen igurikimenean araberak. Eta horra hor estereotipoen maltzurkeria: estereotipoen eskutik generoa *kausa* bihurtzen da, bestelako faktore psikologiko, sozial eta egiturazkoei muzin eginez. Emakumeak *emakume* direlako eta gizonak *gizon* direlako azaltzen da batzuen eta besteen egoera. Horregatik, sistema justifikatzeko teoriak azaltzen duenez, estereotipoek taldeen estatusa gordetzen laguntzen dute eta desberdintasun sozialek justifikatzeko ideologien parte lirateke. Beraz, genero-estereotipoak zergatik eta, batez ere, nola mantentzen diren azaltzeak harreman esplotatzaileak luzaroan irautea ulertzen laguntzen du. Azalpen horretan hizkuntzaren erabilera da gakoa.

Helburu hori izanik, gizarte-psi-kologiari hainbat ikerketa diseinatu genuen. Informazioa biltzeko galdesorta erabili genuen, non genero-estereotipoekin bat (eta aurka) egiten zuten egoerak aurkezten genituen. Bi ikerketatan egoera horiek marrazkien bidez irudikatzen ziren (emakumezko edo gizonezko bat portaera bat egiten); hiru-garren ikerketan hitz gakoak aurkezten ziren binaka (*emakumea* edo *gizona* - *sentibera* edo *gaitasun handikoa*). Ikerketako parte-hartzaileei -16 eta 20 urte bitarteko gazteak-egoera horiek labur (ehun bat hitzetan) deskribatzeko eskatu zitzaizkien. Deskribapen horietatik hizkuntzaren abstrakzio maila lortu genuen. Horretarako, egoerak deskribatzeko parte-hartzaileek erabilitako hizkuntzaren egiturazko ezaugarrien erabilera erlatiboa aztertu genuen. Estereotipoak irauaraztean hizkuntzak duen zeresanari heltzeko, horrelako azterketa pragmatikoa egitea funtsezkoa da. Esanahitik askea den azterketa da eta, beraz, sotilagoa. Azterketa pragmatiko horrek komunikazioan erabiltzen diren hizkuntza-kategoriak hartzen ditu kontuan (ekintza-aditz deskribatzaileak -EAD, ekintza-aditz interpretatzaileak -EAI, egoera-aditzak -EA eta adjektiboak -ADJ). Hizkuntza-kategoria horiek mailarik zehatzenetik edo behagarrietik mailarik abstraktuenera edo interpretaziorik handienera doan kontinuumean kokatzen dira eta ezaugarri bereizgarriak dituzte. EAD kategoriarik konkretuena da (adibidez, *jo*, *deitu*, *eman*); hurrengoa EAI da (*min eman*, *lagundu*, *oparitu*); EA kategoria dator ostean (*gorrotatu*, *estimatu*, *gogoan izan*); eta ADJ abstraktuena da (*gaiztoa*, *jatorra*, *azkarra*). Komunikazio-egoera batean hizkuntza-kategoria horiek mezua egituratzeko erabiltzen dira. Honela, egoeraren, gertaeraren edo talde baten inguruko gure hautemateak edo usteek

-sozialki partekatutakoak- agintzen dute zer esaten dugun eta nola esaten dugun; alegia, portaera edo gertaera bera hizkuntzaren abstrakzio maila ezberdinetan adieraz dezakegu sinesmen haien arabera. Era berean, hizkuntzaren erabileraren eta pentsamendu sozialaren arteko lotura norabide bikoia izanik, hizkuntzaren erabilera ezberdin horren bidez portaerari eta portaeraren egileari buruz entzuleriak egiten duen irudikapena ere ezberdina da.

**Genero-estereotipoak zergatik eta, batez ere, nola mantentzen diren azaltzeak harreman esplotatzaileak luzaroan irautea ulertzen laguntzen du. Azalpen horretan hizkuntzaren erabilera da gakoa**

**Hizkuntza-erabilera genero-estereotipoak mantentzen**  
Esaterako, hurrengo adierazpenak egoera bera komunikatzeko erabil daitezke: batek beste bat *besarkatzen* du (EAD), bat bestea animatzen *saiatzen* da (EAI), bat bestea *kezkatzen* da (EA), bat *sentibera* da (ADJ). Horrelako adierazpenen abstrakzio mailaren arabera entzuleriak ateratzen dituen ondorioak denborarekin eta espazioarekin daude lotuta -deskribatzen den portaeraren egonkortasun eta orokortasunarekin, hain zuzen-. Honela, era konkretuan deskribatzen dena (*besarkatu* edo *saiatu* erabiliz) gertaera zehatz eta isolatu gisa interpretatzen da, testuinguruari lotuta eta ez egileari, eta beraz, ez du estereotipo moldea hartzen, salbuespen gisa hartzen baita. Bestalde, hizkuntza abstraktua erabiltzeak (*kezkatu* edo *sentibera* erabiliz) gertaera egonkor eta iraun-

korra dela pentsatzera darama, errepikatze aukera handikoa eta egilearen adierazgarria; hortaz, hizkuntza abstraktuan adierazten denak estereotipo bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Horregatik, maizago entzuten dugu Ane besteaz kezkatzen dela edo sentibera dela eta Mikelek, aldiz, bestea besarkatzen duela edo animatzen saiatzen dela. Kasu batean zein bestean, estereotipoak hor dirau, emakumeek sentiberak izan behar dute (eta hizkuntza abstraktuagoan irudikatu eta adierazten da); gizonek, aldiz, kompetenteak, ez sentiberak (eta hizkuntza konkretuagoan irudikatu eta adierazten da). Ondorioz, desberdintasuna justifikatzeko erabiltzen diren genero-estereotipoak hizkuntza erabiliz ezagutarazten dira (*zer* eta *nolakoa*) eta gizartean hedatutako ezagutza (*nola*) bihurtzen dira haiek egonkor irauaraziz.

**Eraldaketarako bidean**

Egun, adostasun zabala dago generoaren arazoaren oinarrian emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasun soziala dagoela, hau da, botere-desberdintasunak erabakiak hartzeko esparru ekonomiko, politiko eta sozialean. Halere, arazoa ez omen dago oinarrizko eskubideen aitortzan, eskubide horiek ukatzeko ematen diren zurrubideetan baizik. Hizkuntza, talde arteko testuinguruetan, aurreiritziaren neurri bihurtzen da -sotila edo ezkutua- taldeei buruzko estereotipoak sortu edota mantentzen laguntzen duena. Alde horretatik, hizkuntza mundu sozialean eragiteko tresna boteretsua da, errealitateaz zabaltzen dugun irudikapena dela medio. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna iraukorra bezain mingarria den errealitate hau hizkuntza erabiliz egonkortzeko ala eraldatzeko aukera dugu. ■

Babeslea: Euskaltzaindia

